



BIZKAIKO LANKIDETZAREN PLAN ZUZENTZAILEA 2013 - 2015

Bizkaia bizia



BFA
DFB
Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Gizarte
Ekintza Saila
Departamento
de Acción Social



1. Aurkezpena eta aurrekariak

-2013-2015 aldirako Bizkaiko Lankidetzaren Plan Zuzentzailea, aurretik, 2009-2011 aldian indarrean egon zen planaren ondorengoa da.

-Urtebetean zehar **erakundeen artean** izandako **lankidetzaren** eta **gizartearen parte-hartzearen** emaitza izan zen lehenengo plan hori.

-2011. urtean amaitu ostean, lankidetzaren politika aplikatuz **lortu ziren emaitzak** baloratzeko azterketa bat egin zen. Azterketa horretatik bi ondorio azpimarratu behar ditugu:

1. Aurkezpena eta aurrekariak

-Nortasun berezia eman zitzaien hiru urte horietan onartutako proiektuei: **erakunde publikoen edo Batasuneko erakundeen parte-hartzearekin emakumeen eskubideak modu aktiboan defendatzen dituzten proiektuei** (hirurteko horretako aurrekontuaren %70 baino gehiago emakumeen eskubideak defendatzera bideratu zen).

-Hobetu beharreko alderdi bat antzeman zen: **Tokiko Giza Garapenaren ikuspegiaren** interpretazio zurruna. Erakunde publikoaren ekintza nagusitu zen, egon zitezkeen beste garapen-eragile batzuen gainetik.

1. Aurkezpena eta aurrekariak

-Azken batean, plan horren bidez **koherentzia** handiagoa eman zitzaien 2009-2011 hirurtekoan onartutako proiektuei, aurreko urteetan, hau da, plan zuzentzailerik ez zegoen urteetan onartu ziren proiektuekin alderatuta.

-Horrenbestez, **2009. urtean hasitako lanarekin jarraituko** dugu. Esperientzia horretan sakontzen jarraitu behar dugu, eta antzeman diren akatsak zuzendu (TGG).

- Beste bi ikuspegiak, Genero Berdintasuna eta Garapenerako Hezkuntza izenekoak, **ondo “funtzionatu” dute**, onartutako proiektuen ezaugarrien eta lankidetzarako foru politikaren asmo-adierazpenen arteko kontrastea aintzat hartuta.

1. Aurkezpena eta aurrekariak

- Tamalez, **beste bi diputazioak ez datoz bat** egindako lanaren balorazio positibo hauekin. Bestela gertatu bazen, EAĒko lankidetzari nortasun argiagoa emango geniola uste dugu.
- Edozelan ere, esan bezala, gure asmoa da hasitako lankidetzapolitikarekin aurrera jarraitzea. Horregatik, 2013 – 2015 Gida Planaren zirriborroa GGKEei iritzia eman zezaten aurkeztu ondoren eta egindako ia ohar guztiak ontzat eman ondoren, onartu egin zen datozen hiru urteetan gure lankidetzapolitika gidatuko duen plana.

2. Helburua eta printzipioak

-Gure helburua garapenerako lankidetzazko politika bat garatzea da. Politika hori **koordinatua eta kalitatezkoa** izan behar da, eta ondokoak hartu behar ditu oinarri gisa: **pobreziaren aurkako borroka, genero berdintasunaren sustapena eta gizarte-kontzientzia kritikoaren eta eraldatzailearen sorrera.**

-Helburu orokor hori **Hegoaldean pobrezian bizi diren herri eta erkidegoetan** aplikatu nahi da, baina baita **gure lurralde historikoko gizartean** eta **gure administrazioan** ere. 2013-2015 aldirako Plan Zuzentzaileak bide horretan joateko kasu bakoitzean behar diren orientabideak ezartzen ditu.

2. Helburua eta printzipioak

Plan Zuzentzaile honetan ezarritakoaren arabera abian jartzen diren ekintzek beheko **printzipioak** bete behar dituzte:

- Integraltasuna.
- Elkartzea.
- Koordinazioa eta lankidetzeta.
- Koherentzia.
- Erantzukidetasuna.
- Eraldaketa.
- Ebaluazioa.

3. Plan Zuzentzailearen ikuspegiak

Azaldu bezala, Plan Zuzentzaile honek aurrekoaren ardatz izan ziren hiru ikuspegiei jarraipena emango die.

1. **Tokiko Giza Garapenaren** ikuspegia. Bigarren Plan Zuzentzailean lehenengoan jaso zen TGG kontzeptua zabaldu da; instituzionaltasun sozialaren ideia ere sartu da.
2. **Genero Berdintasunaren** ikuspegia. Ez da aldatu; emakumeen eskubideen defentsa aktiboa hartu da oinarri moduan.
3. **Garapenerako Hezkuntzaren** ikuspegia. Hemen ere ez da aldaketa garrantzitsurik egin, baina ideia bat indartu da: epe luzerako ikuspegia sartu behar da, aldaketa kulturalak egiteko prozesuak luzeak izaten direlako.

4. Bizkaiko lankidetzaren eragileak

Bizkaiko lankidetzaren eragileak izan daitezkeenak identifikatu nahi badira **gure lurralde historikoan dauden aukera guztiak erabili** behar ditugula uste dugu; **horrela, arestian aipatu helburua bete ahal izango dugu.**

Zehazki, gure lankidetzaren politika gauzatzeko eragile gisa eduki behar ditugu honako talde hauek:

1. **GGKEak.** Lankidetzaren esparruan duten eskarmentua eta konpromisoa kontuan hartuta, estrategikoak dira Plan Zuzentzailea aplikatzeko.
2. **Gizarte zibilaren beste eragile batzuk.** Garapenerako lankidetzaren helburu gisa izan ez arren, gizarte-lanean duten eskarmentuari esker sektore honetan lan egin dezakete.

4. Bizkaiko lankidetzaren eragileak

- 3. Tokiko botere publikoak:** foru erakundeak, gure lurralde historikoko udalerrriak, Euskal Fondoa eta udalerrietako beste sare batzuk, baita Hegoaldeko homologoak ere.
- 4. Bestelako erakunde publikoak:** nazioartekoak, estatukoak eta Iparraldeko herrialdeetako administrazio deszentralizatuko beste batzuk; baita Hegoaldeko estatuek Bizkaian dituzten ordezkariak edo estaturik gabeko herrialdeen ordezkariak ere.

5. Bizkaiko lankidetzarako baliabideak

Bizkaiko garapenerako lankidetzaz hori aurrerago aipatutako eragileen bidez bideratzeko hurrengo baliabideak ditugu:

1. **Laguntza humanitarioa eta larrialdietakoa.** Laguntza bakarra dago, irekia eta iraunkorra; eta deialdiaren aurrekontuko %3 hartzen du gutxienez.
2. **Hegoaldeko erkidegoetan tokiko garapena bultzatzeko proiektuak.** Gutxienez aurrekontuaren %60.
3. **Garapena helburu duten sentsibilizazioari, prestakuntzari, eragin politikoari, ikerketari eta hezkuntzari lotutako proiektuak.** Gutxienez aurrekontuaren %10.

5. Bizkaiko lankidetzarako baliabideak

4. **Unean uneko deialdiak** ohikoak ez diren eragileak lankidetzaren esparruan lan egitera bultzatzeko. Gehienez aurrekontuaren %5.
5. **Laguntza teknikoa** kontratatzea, **proiektuen plangintzan eta aurkezpenean generoaren ikuspegia sartzeko**. Gehienez aurrekonturen %2.
6. **Laguntza teknikoa** kontratatzea, **generoaren ikuspegia tokiko erakundeetan instituzionalizatzeko**. Gehienez aurrekontuaren %4.
7. Bizkaiko Foru Aldundiaren **zuzeneko lankidetz**a, aurretik azaldu diren sei baliabideetan esku hartu dezaketen eragileak tartean egon gabe. **Gehienez aurrekontuaren %10**. **Baina kasu berezietan, %15eraino igo daiteke**.

6. Plan Zuzentzailearen jarraipena eta ebaluazioa

Hiru modutara egingo da Plan Zuzentzailearen jarraipena eta ebaluazioa:

1. **Jarraipena**, laguntzen deialdian aurkeztu diren proiektuak eta zuzeneko lankidetzaren barruan egindakoak baloratzeko aplikatu diren baremazio-adierazleen bidez.
2. **Balorazioa**, urtean behin, Plan Zuzentzailea indarrean dagoen bitartean. Emaitzak, erabilgarritasuna eta gizartean izandako eragina azalduko dira.
3. **Azken ebaluazioa**, Plan Zuzentzailea indarrean dagoen hirurtekoan zehar aplikatu den lankidetzaren politikari buruz.